



20
25

urtekaria

IRUTXULOKO
HITZA

Kirol txartela 2026

Ekin
osasunari!



Donostia
Kirola



**ZURE
ARGAZKIA**

IRUTXULOKO HITZA

2026 agenda
dendetan salgai
15 euroan

Hontza - Erdialdea

Ebla - Egia

Garazi - Antigua

Urtea joan da eta

Hemen gaude, beste urte batez, urteak Donostian emandakoaren errepasoa egiten. Ezinezkoa da 2025 osoa 32 orrialdetan laburbiltzea, baina ahalik eta errepasorik zintzo eta zabalena egiten saiatu gara: hurrengo orrialdeetan aurkituko dituzu urteko Donostiako gertakariak esanguratsuenak.

Askotariko gaiei buruz idatzi dugu aurten ere IRUTXULOKO HITZAN: etxebizitza larrialdia, hiriaren turistifikazioa, Donostiako Metroa, pobrezia, elkartasuna, jarrera erreakzionarioen gorakada, Palestinaren aldeko mugimendua, lanak han eta hemen, grebak, mugikortasuna, azpiegiturak, ondarea, memoria historikoa, futbola, Zinemaldia, arrauna, Jazzaldia, urteurrenak, irekierak eta itxierak, jaiak nonahi, askotariko erasoak, auzo mugimenduak eta abar luze bat.

Gai horiek guztiek eta askoz gehiagok ere osatzen dute gure hiria, Donostia asko sartzen diren Donostia. Eta, beste urte batez, Donostia guztien berri eman dizuegu aurten ere, ahalik eta hoberen eta, batez ere, euskaraz, tokikotik eta behetik gora. IRUTXULOKO HITZAK hogeitau urte bete dituen urte honetan, urteurrenaren bueltan, *Mundu osoa da tokikoa* leloa erabiltzen aritu gara, eta, hain zuzen, helburu horrekin jarraitzen dugu egunero lan egiten: tokikotik mundu osoa kontatzea.

Hori egiten jarraituko dugu 2026an ere. Etxebizitzaz, elkartasunaz, jaiez, arraunaz, memoriaz, turismoaz, metroaz eta etorriko diren gauza guztiez hitz egiten. Donostiari buruz kontatzen ez dizutena kontatzen. Donostiar guztiak donostiar izatearen harro egoteko moduko hiria eraikitzeko gure alea jartzen. Txikitik eragiten. Euskaraz eta tokikotik. Zure babesarekin.



 Ametzagaña, 19, behea, 20012 Donostia
 943-46 72 36
 donostia@hitza.eus

Irutxulo.hitza.eus

Argitaratzailea: Donostiako Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-226-05
Diseinua eta maketazioa: Oier Arribas Ciria
Zuzendaria: Beñat Parra Rodriguez
Erredakzioa: Inaxio Esnaola Aranzadi, Maitane Aldanondo Gabilondo, Nagore Garmendia Artano, Xalba Ramirez Cruz
Kudeatzailea: Naike Usabiaga Urruzola
Publizitatea: Aizpea Aizpuru Arroio
aizpuru@hitza.eus · 688-60 71 08
Diseinatzailea: Oier Arribas Ciria
Sustapena: Andrea Bosch Alfaro



Donostiako Hedabideak SL:



Proiektua diruz laguntzen duten erakundeak:





Agustindarren eraikineko kaleratzea salatzen duen manifestazioa. **JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN**

Miseria gora doa hirian: etxegabetzeak eta jendea kalean hilik

Azken urteotan okertzen ari den krisi ekonomikoa gero eta agerikoa da hirian: pobreak gizartearen sektore gero eta gehiago hartzen ditu. Honela, batzuetan nahikoa egiteko borondatearik ez dagoen arren, egia da Donostiako Udaleko zerbitzuek jada ez dutela oinarritzko beharrak asetzeko gaitasunik. 500 lagun zenbatu dituzte aurten kale egoeran Donostian. Zenbaketa egiten denetik zifrarik altuena litzateke hau.

Pobreziarekin batera, migratzaile ugari dira kale egoeran daudenak hirian. Maroko, Argelia eta Malitiko etorritako herritar ugari saiatu dira bizitza duin bat eraikitzen hirian aurten, Atzeritarren Legea eta bestelako burokraziak lagun izan ez arren. Honela, martxoan, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak Manteo inguruan zegoen migratutako pertsonen kokaleku bat hustu zuen. Horri erantzunez, Donostiako Udaleko LABeko atal sindikalak ohar batean gaitzetsi zuen Udaltzaingoa «helburu alderdikoekin» erabiltzea, eta erabilera horren oinarrian dauden «jarrera xenofobo eta arrazistak» salatu zituen. Izan ere, esku hartzea PPko zinegotzi Borja Corominasek sare sozialetan kokalekuaren

berri eman eta halakoak husteko beharra adierazi ondoren gertatu zen.

Hedabide honek elkarrizketa egin zien bertan bizi ziren bi gazteri: «Ez genuen komunik, ez urrik, ez argindarrik... eta hori ere kendu digute!».

Kaleko Afari Solidarioak eta Hiritarren Harrera Sareak udalaren «deriba erasokor eta arrazista» salatu zuten, «modu arbitrarioan», kale egoeran dauden herritarren «eskubide oinarritzkoenak zapaltzen» ari zirela deitoratuz. Larrituta agertu ziren boluntarioak: «Ulertezina egiten zaigu zein gogor tratatzen diren, hain zuzen ere, egoera okerragoan daudenak». Erakundeei dei egin zieten beharrezko ardurak hartzeko: «Instituzioak ez badira gai gazte horientzat guztientzat beharrezkoak diren baliabideak emateko, zergatik suntsitu gazteok eta boluntarioek elkarrekin egiten dugun lana?».

Udan, jai giroan izandako eraso arrazistak izan zituen hizpide hiriko mugimendu antirrazistak. Hernanin izandako eraso «morofobo» harira, elkarretaratze jendetsuak egin zituzten Karmengo jaietan eta Aste Nagusiaren bezperatan. Hain zuzen ere, Aste Nagusi izandako hainbat eraso arrazistaren berri eman

zuen Harrera Sareak, bideo bortitz batzuekin.

Elkartasuna ere jazarria izan da, beste urte batez. Honela, Guztiontzako Egia auzotar sareak ia hilabetero Blas de Otero plazan egiten duen jarduera jazarri zuen Udaltzaingoak, hainbat pertsona identifikatuz eta mehatxatuz.

Abenduan, berriz, Martutenen izandako Agustindarren eraikina-ren hustuketa masiboa izan zen. 111 lagun bizi ziren bertan, eta abisua lehendik ere pasatuta zegoen arren, Poliziak bederatzi lagun identifikatu eta horietako lau atxilotuta eraman zituen. Izugarritzko polizia operazioa prestatu zuten hustuketarako, eta horrek, kritika ugari zabaldu zituen. Era berean, Donostiako Udalak La Sirena aterpetxea erabili zuen bertan zeuden 48 laguni ostatu emateko, hasiera batean, 80 bat aurreikusten zituzten harren. Harrera Sareak guzti-guztiak artatzeko eskatu zuen. Horrez gain, aipatzekoa da Martu Harrera taldea sortu dutela auzoan hainbat eragilek, «auzora etorri berrientzako eta auzo-tarrentzako ongietorria egiteko».

Eta urtea albiste tamalekin amaitzeko, kale egoeran zeuden bi heriotzen berri izan zen abenduan. Lehenengoaren kasuan, Kontseilu Sozialistak salatu zuen udalak «ez-kutatu» egin zuela hildakoa. Bigarrenaren kasuan, elkarretaratzea egin zuten hainbat kolektibok, «kapitalismoa» eta «etxebizitzaren arazoa» seinalatuz kausa gisa. ●



Palestinaren alde, beste urtebetez

Asko izan dira 2025ean ere Palestinaren aldeko egindako mobilizazioak. Nabarmenenetako batzuk dira ekainaren 14an CAF enpresa genozidioaren «konplize» dela salatzeako manifestaziorik handiena egin zutela Donostian, eta urriaren 15ean Palestinaren alde egindako lanuztea. Bestetik, aipatzekoa da Zinemaldi historikoa: zuzendari eta aktore gehienek Gazaren aldeko pegatina jantzi zuten, eta Zinemaldiak berak ere su etena eskatu zuen, lehenengo aldiz historian Palestinaren alde posizionatuz. Herritarrek mobilizazio jendetsuak egin zituzten egun horietan, eta bi gazte Kursaleko zubitik eskegi ziren, esaterako. ●





Langileak euren eskubideen alde borrokan

Asko izan dira aurtan ere langile borroka sektorialak: protestak, lanuzteak, greba egunak eta mota orotako mobilizazioak egin dituzte langileek euren lan baldintzak hobetzeko asmoz. Otsailean, Telparkeko langileek lanuztea antolatu zuten, baita Dbiziko langileek ere. Apirilean, Correoseko langileek protestaldia egin zuten, eta Maiatzaren 1ean sindikatuak hainbat mobilizazio egin zituzten hirian. Nabarmentzekoa, bezperan, SOS Arrazakeriarekin batera, etxeko langileek egindako protestaldia. Zurriola Ikastolako langileek itxialdia egin zuten, baita ere, urte amaieran. Hiri mailan, garrantzitsuena, Gizarte Ekintzako langileek egindako borrokaldia izan da. Mobilizazio egun askoren, lau eguneko lanuztearen eta hamabi eguneko grebaren ondoren, akordioa lortu zuten Donostiako Udalarekin, aldarrikapen gehienei bide eginez. ●



Hilberriak: Teresa del Valle, Patxi Apalategi, Fermin Leizaola, Jone Forcada eta Koldo Artola

Herriko ondarean mugarri izan diren hainbat donostiar zendu dira aurtan. Patxi Apalategi (1945-2025) itzul-tzailea da bat, euskarara lan garrantzitsuak ekarri zituena. Fermin Leizaola (1943-2025) etnografoa, Aranzadiko Etnografia Saileko zuzendaria izan da urte luzez, eta ehunka pieza eta ikerketa bilduma utzi ditu ondarearen zaintzan. Jone Forcada (1933-2025) euskaltzale eta militantea urrian hil zen, berak hala erabakita, eutanasia protokoloa aplikatuta. Teresa del Valle antropologo eta ikerlari feminista 88 urterekin hil zen apirilean. *Mujer vasca. Imagen y realidad* azterlana (*Euskal Herriko emakumea. Irudia eta errealitatea*) Euskal Herriko antropologia feministaren abiapuntuetako bat izan zen. Koldo Artola etnolinguista eta ohorezko euskaltzaina; ahozko ondarea biltzen eta euskararen euskalkiak ikertzen ibilbide luzea egin zuena. ●

Desazkunde turistikoaren bidean borrokan

Turismoak eta hotel kopuruek gora egiten jarraitu dute urte honetan ere. Udalak etxebizitza turistikoak kontrolatuko dituela adierazi arren, neurriek ez dute oraindik «desazkundearen» bidea hartu. Zentzu horretan, Bizilagunekin plataformak hamarka mobilizazio egin ditu aurten ere. Ekainaren 15ean egin zuten mobilizazio handiena, hiriko 50 bat eragileren babesarekin. Urrian, gainera, jardunaldiak antolatuz turismoaren kontrako borrokan urratsak egiteko. •



Etxebizitzak pobrezian duen eragina aztertu du Caritasek

Caritasek ohartarazi du, beste urte batez, etxebizitzarako sarbideak izateko zailtasunek pobrezia kroniko egiten dutela. Urtero egiten duten txostenean jaso dute ondorio hau, eta adierazi dute ikertutako familien %60 bizitoki bazterkeria egoeran edo arriskuan daudela. Pertsona guztiek etxebizitzarako duten eskubidearen inguruko kanpainaren datuak argitaratu zituzten 2025ean. Hain justu, 5.320 etxe aztertu zituzten, eta %38,7an pertsona bat bakarrik bizi zen, %30,8an bikoteak seme-alabekin, %20,5ean guraso bakarreko familiak, %4,8an seme-alabarik gabeko bikoteak eta %5,2an bestelakoak. •

Hamaika lagun kaleratu zituen Ertzaintzak Egian

Urriaren 29an, aspaldian izandako etxegabetze ezohikoena izan zen Egian, Aldapa kalean. Hamaika lagun kaleratu zituen Ertzaintzak, egun batetik bestera, tartean 11 urteko mutikoa eta zortzi hilabeteko haurdunaldia zuen emakumea. Zortzi logeletan bizi ziren lagunek, ordea, 600 euro ordaintzen zituzten hilero: azpikontratatu egiten zieten eta, maizterrek ordaindu arren, bitartekariak ez zion jabeari ematen dirua. Kale gorrian geratu ziren guztiak eta herri mugimenduen bitartekaritzari esker lortu zuten gutxi batzuek behin-behineko aterabidea. •



ILAZKI
EUSKALTEGIA

HABEk diruz lagundua

HADE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Zabaldu zure
mundua

www.ilazki.eus · Konstituzio plaza, 5 · 943-42 49 10 · ilazki@ilazki.eus



Itzalaldiak urteko egun arraroena eman zuen

Donostian berebiziko ondorioak izan ez zituen arren, Hego Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan urteko albisteetako bat izan zena jazo zen apirilean: itzalaldi masiboa. Gainezka egin zuen argindar sareak, eta hainbat orduz kolapsatu egin ziren sistemak. Donostian ordubete eta hiru ordu artekoa izan zen sarearen eroraldia, eta honela ere, 42 esku hartze egin zituzten udaltzainek eta suhiltzaileek. •

EHGAMen eta Wohouren muralari eraso egin zioten faxistek

Mezu faxisten ugaritzeari aurre egiteko kanpaina abiatu zuten EHGAM, sexu askapenerako erakundeak, eta Wohou artistak, apirilean. Bada, lehenago gertatu izan den moduan, pintaketa faxistak eta LGTBifobikoak egin zizkioten maiatzean Matigoxotegiko zelaiaren aurrean (Egia) zegoen horma irudiari. Faxistek eginiko pintaketan, «anti-antifaxistak» eta «degeneratuak» idatzi zuten, baita svastika naziak egin ere. •



Aniztasunaren aldeko igandea ospatu zuten Egian, Bizipozaren eskutik

Euskal Herri mailan antolatuta dagoen arren, Bizipoza elkarteak Donostiara egin zuen jauzi, zehazki Egia auzora, aurtengo jaia antolatze-ko. Maiatzaren 11n. «Euren artean ezberdinak diruditen arren», Bizipozaren aterkipean denek «helburu berdinak» landu zituzten: «Familia eredu ezberdinak, gaixotasunen edo sindromeen inguruan lan egiten dutenak, identitatearen inguruan dabiltzanak, nazioartean lan egiten dutenak...». •



LAIA

ABOKATUAK



Tel.: 943-42 92 27 / 688-61 35 30

Mundaiz bidea, 10, 24A, 20012 Donostia

Triku Harri

taberna & jatetxea



Matia Kalea 35, Antigua

www.trikuharrijatetxea.com

Martxoak 8: ausardia eta aliantzen beharra, aldarri

Jarrera erreakzionarioak, transfoboak, arrazistak, gorroto diskurtsoak, feminismoaren kontrakotasun esplizitua... Faxismoaren adierazpenen gorakadaren aurrean, mugimendu feministak kaleak hartu zituen beste urte batez, bai Martxoaren 8an, baita Azaroaren 25ean ere. Joera erreakzionarioaren gorakadari aurre eginez, honako leloa landu dute aurtengoan: *Faxismoaren kontra ausardia eta aliantza feministak*. •



Udaltzaingoaren barruan izandako sexu jazarpenaren ikerketa itxita, salaketarik gabe

Donostiako Udaleko Langileen Batzordeko kide diren sindikatuek eskatu zuten Udaltzaingoaren barruan kanpoko ikerketa «inpartziala eta objektiboa» egin zezatela, Udaltzaingoko agintari baten aurka sexu jazarpenagatik sare soziale-tan agertu diren akusazioengatik. Ordea, martxoan, Martin Ibabe Segurtasun zinegotziak adierazi zuen «salaketarik gabe» itxi zutela ikerketa. «30 agenterekin baino gehiagorekin harremanetan jarri dira, eta deia eskertu dute, baina horietako inork ez du salaketarik jarri», azaldu zuen Ibabek. •

Birunda gune autogestionatua «ilegalki» hustu zuten

Parte Zaharreko Abuztuak 31 kaleko Birunda gune autogestionatua hustu zuten martxoan, baita «modu ilegalean» hustu ere, Birundako kideek salatu zuten. Hain zuzen ere, ustez, lokalaren jabetza eskuratu zutenek bidali zituzten sarraileak eta, Ertzaintzak babestuta, leihotik sartu eta lokaleko sarraila aldatu zuten. Ondoren, Ertzaintzak gunea zinta batekin itxi zuen. •



aek euskara
praktikoa

Euskara eroso
ikasi eta bizi

DONOSTIA

EUSKARA - IKASTAROAK

Antiguako AEK

Erregezain, 22 · 943 21 80 88 · antigua@aec.eus

Amara Berri AEK

Ordoñez 7 (ARCCO parean) · 943 47 45 92 · amara@aec.eus

Groseko Irrintzi AEK

Iztueta 3, behea · 943 32 76 11 · gros@aec.eus





Euskararen aurkako epai bat salatzeko elkarretaratzea. INAXIO ESNAOLA

Epaitegien itzala eta kaleen ahotsa: euskararen aurkako oldarraldia Donostian

2025ean zehar, eta bereziki azken hilabeteotan, Donostia euskararen inguruko gatazka politiko, sozial eta juridiko baten erdigune bihurtu da. Kalean, ikastetxeetan eta lantokietan euskararen aldeko mobilizazioak ugaritu diren bitartean, azken urteotan gertatu den bezala, epaitegietatik etorritako erabakiek hizkuntza eskubideen aplikazioa zalantzan jarri dute, eta bi norabide horien arteko talkak markatu du azken hilabeteetako agenda.

Udazkenetik aurrera, zehazki irailean, Donostiako epaitegi batek mugikortasun agente izateko ezarritako euskara eskakizun baten aurka egin zuen. Epaiazen arabera, lanpostu horretarako ez zen beharrezkoa euskaraz jakitea, eta horrek atea ireki zion ondorengo beste erabaki bati: mugikortasun agente izateko euskaraz jakitea ez dela beharrezkoa berretsi zuen epaitegiak, egun batzuk geroago.

Azaroan, beste epai batek Gipuzkoako Foru Aldundian administrari izateko euskara eskakizuna balio gabetu zuen. Horren aurrean, sindikatuek, euskalgintzak eta hainbat eragile politikok salatu zuten epaitegietatik datorren euskararen aurkako

joera sistematikoa, eta ohartarazi zuten «hizkuntza eskubideak atzera egiten ari direla» administrazio publikoan. Ateratako epai bakoitzarekin, kalera ateratzen aritu dira euskaltzaleak, Euskalgintzaren Kontseilua eta Bagera elkarteak buru.

Azaroaren 19an, suhiltzaileek publikoki adierazi zuten euskaraz lan egin eta herritarrek euskaraz artatu nahi dituztela. Haien ustez, «larrialdi zerbitzuetan ere hizkuntza eskubideak bermatzea ezinbestekoa da», eta horretarako administrazioak baliabideak jarri behar ditu. Suhiltzaileen aldarrikapenak agerian utzi zuen euskara ez dela soilik baldintza legal bat, baizik eta lan eskubide eta zerbitzu publikoaren kalitatearen parte.

Azaroaren amaieran, hainbat eragilek salatu zuten euskararen ofizialtasuna «deseraikitzen» ari direla. Epai judizialak, ordenantzak ez betetzea eta administrazioaren jarrera pasiboa izan zituzten jo-mugan. Testuinguru horretan, EH Bilduk Donostiako Udalarari eskatu zion euskararen ordenantza zorroztz betearazteko, «herritarrek euskaraz artatuak izateko duten eskubidea benetan bermatzeko».

Abenduaren 3an, Euskararen Egunean, Ernai gazte antolakundeak epaitegien aurrean ekintza politikoa egin zuen, mezu argi batekin: euskarak independentzia behar du. Gazteen ustez, gaur egungo marko juridiko eta politikoa ez du euskararen normalizazioa ahalbidetzen. Ildo berean, egun batzuk geroago, Euskal Herrian Euskarazek (EHE) eta Ikamak euskararen aldeko politikak eskatu zituzten, «neurri sinbolikoetatik harago» joateko deia eginez. Guardetxean egindako topaketa batean, gazteek euskalgintzari egiten dioten ekarpenaren inguruan hausnartu zuten: nola berritu diskurtsoa, nola indartu erabilera, eta nola egin aurre atzera-pausoei.

Abenduaren 11n, ehunka gaztek hiriko kaleak hartu zituzten, hezkuntza euskalduna eta independentzia aldarrikatzeko. Ikasleen esanetan, egungo sistemak ez du bermatzen euskaraz bizitzeko aukera osoa, eta «hezkuntza da borroka horren oinarrietako bat». Mobilizazio horrek erakutsi zuen gazteen artean euskarak oraindik ere pisua duela, baina baita ere, lortutakoa ez dela nahikoa. Bien arteko talkak markatuko du hurrengo urteetako hizkuntza politika. ●

Euskaraldian murgildu da Donostia

Maiatzaren 15etik 25era egin zen Euskaraldia, euskararen erabilera eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa soziala. Donostiak bat egin zuen ekimenarekin, eta Bagera elkarteak eta Donostiako Udaleko euskara zerbitzuak elkarlanean antolatu zuten, «herritarren zein entitateen parte hartzea sustatzeko». Antolatzaileek azpimarratu zuten hauen inplikazioa «ezinbestekoa» izan zela, lantokiak, elkarteak eta bestelako espazioak hizkuntza ohiturak lantzeko gune bihurtzerako garaian.

Donostiako Euskaraldiak hamaika enbaxadore aurkeztu zituen, aurtien ere, ekimenaren mezua zabaltu eta jendartearen inplikazioa handitzeko: Sara Zozaia abeslaria, Jose Miguel Ayerza Adegiko zuzendari nagusia, Maialen Barcena AEK euskaltegiko irakas-




lea, Jon Garaño zinema zuzendaria, Laura Chamorro moda aditua eta aurkezlea, Borja Agote surflaria, Edurne Ormazabal Tabakalerako zuzendaria, Xabier Zabaleta sukaldaria, Josebe Amondarain Ikasbide elkarteko idazkaria, Unai Ribera DJ-a eta Txurdin Realeko maskota izan ziren hiriaren enbaxadoreak. ●



Amale Arzelusen oroimenak argitaratu ditu bere seme Jonan Zinkunegik

Arzelus Arrieta'tar Amale. Nere Oroimenak liburua argitaratu du Jon Andoni *Jonan* Zinkunegi Arzelusek, Amale Arzelus donostiarraren semeak, amak idatzita utzi zituen *Nere oroimenak* eta *Nere ekintzak* testuak bilduta eta bere ekarpen propioak gehituta. Sabino Arana Fundazioaren Euskal Abertzaletasunaren Museoarekin argitaratu du lana, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Amale Arzelus irratian euskaraz aritu zen lehenengo emakumea izan zen, eta 2015ean zendu zen, 91 urte zituela. ●



AB Krossaren 10. edizioa egin zuten maiatzean

Hamargarren AB Krossa, euskararen aldeko lasterketa herrikoa egin zuten maiatzean, Amara Berri eta Loiolako Erribera auzoetan barrena. Berezia izan zen aurtengoa, gainera, Euskaraldiarekin bat egin zuelako. 250 korrikalarik parte hartu zuten, 3 km eta 6 km-ko ibilbideetan, eta giro beroa izan zen herritarren txalo eta animazioarekin. Antolatzaileek nabarmendu zuten lasterketa parekidea izan zela eta emakumezkoen nagusitasuna lortu zuela. Eguna, horrenbestez, musika giroan ospatu zuten, eta sari banaketarekin eman zioten amaiera. ●



Añorgako arigunea, euskararen erabilera biziberritzeko

Gipuzkoa Arigune egitasmoa martxan jarri zuten Añorgan, euskararen ulermena eta erabilera sendotzeko helburuarekin. Proiektuak gune seguruak eta komunitate jarduerak sortu zituen hizkuntza ohiturak aldatzeko eta herritarren parte hartzea sustatzeko. Esperimentazio fasean, Antzuolan, Aian eta Añorgan egindako ekimenek euskararen erabilera egunero kora eraman eta komunitatea aktibatu zuten. Antolatzaileen hitzetan, une horiek ez dute soilik ulermena lantzen, «euskaraz hitz egiteko ohitura eta konfiantza» ere sortu zuten. ●

Amara Berri



Hamarnaka maliar Kofradien plaza inguruan bizitzen

Jaioterriko gerratik ihesi, 50 bat maliarrek astetan Amara Berriko Kofradien plazan kale egoeran bizi behar izan zuten, euren asilo eskaerak izapidetzeko ezintasunaren ondorioz. Auzotarrek elkartasuna adierazi eta laguntza eman zieten, erakundeen pasibotasunaren aurrean. Abuztu hasieran, aldundiak, udalarekin lankidetzan, Oñatin duen ostatu bat egokitu zien, errefuxiatu izaera aitortu eta nazioarteko babesa lortzeko izapideak osatu artean. •

Añorga



Cementos Rezolak bi urteurren borobil ospatu ditu

Cementos Rezola fabrikak 175 urte bete ditu aurtun eta bere altzoan sortutako Museum Cemento Rezolak, berri, 25. Bi urteurren ospatzeko, Heidelberg Materials enpresak bi ospakizun antolatu zituen Añorgan. Lehena, azaroaren 29an plazan egindako ekitaldia. Beñat Gaztelumendi eta Jon Altuna bertsolariak, Gure Kabia abesbatza eta Arkaitz Dantza taldea aritu ziren. Bigarren, Donostiako Orfeoia kontzertua eman zuen eta ondoren ardo kopa izan zen. •

Altza



Euskadiko Bolo Txapelketa Herrerara bueltatu da

Euskadiko Bolo Txapelketa jokatu zuten Herrerako Arrobitxulo parkean. Herrera Kirol Elkartek eta Ategorrietako bolatokia ibili ohi diren hainbat bolarik antolatuta. Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian denboraldi onena egin zutenak elkartu ziren Arrobitxulon, bakoitze hamabost gizon onenak eta hiru emakume onenak. Euskal Giroa elkarteak jarri zuen hamai-ketakoa eta Herrera Kirol Elkarteak bazkariarekin amaitu zen txapelketa. •

Egia



Gordegiak bosturtekoa egin du auzoaren historia zaintzen

Duela bost urte jaio zen Godegia, Egiako artxibategi grafikoa. Auzoko 7.000 bat argazki eta bideo ditu webgunean auzotarren eskura, baina itxaron zerrendan ere beste asko dituzte dokumentatu eta testuinguruan kokatzeko zain. Sei kide aritzen dira elikatzeko artxibo ofizialak arakatzeko, baina auzotarrek ere ekarpen ugari egiten dizkiete. Gainera, *Txurritala* liburua argitaratu eta bestelako jarduerak egin dituzte ere. •

Gros



Manteoren birgaitzea eta beharrak asetzea eskatu dute

Manteoko bizilagunek auzunea erabat utzita dagoela salatu zuten, gabezia ugariekin: argiztapen falta, ekipamenduen degradazioa, zikinkeria eta segurtasun eza. Udalari neurri «eraginkorrak» exijitu zizkieten ere, kalteturiko espazio publikoa lehengoratzea eta auzunea hobetzeko plan integral bat ezartzea. Eskaera horri beste bat gehitu zioten, hilabete gutxira: irisgarritasuna mantentzea. Protesta ekintza ugari egin zituzten eraistea saihesteko. •

Loiolako Erribera



Trafikoarekin kezkatuta jarraitzen dute bizilagunek

Iraila erdialdean, auto batek 9 urteko haur bat harrapatu zuen Bartzelona hiribidean. Lekukoen arabera, haurra errepidera ateratu zen, eta bertatik pasatu behar zuen ibilgailuak ez zuen gelditze denborarik izan. Ez zen lehen ezbeharra izan, baina gertakariak areagotu egin zuen bizilagunek trafikoarekin duten kezka. Urtetako eskaera da bi kale nagusietan abiadura murriztea eta urteko azken asteetan udalak proposamen bat aurkeztu die. •



Tokiko entitate txikia eratu dute

Martxo hasieran, Igeldoko toki entitate txikia eratu eta eskumen propioak bereganatu zituen. Behin-behineko batzorde kudeatzailea 2027ko maiatzeko udal hauteskundeak arte egongo da agintean, eta hauteskundeetako araudiaren arabera, EH Bilduk lau kide aukeratu zituen, Igeldoko Herri Kontseilukoak, eta bosgarrena, EAJk. Hamar egun geroago, entitate txikiaren sorrera festa egin zuten Igeldoko plazan egun osoko egitarauarekin. •



Sorleku parkea 2026. urtean egongo da erabilgarri

Parte hartze prozesua egin zutenetik zortzi urte pasatu direnean, lanen kontratazio espedientea onartu zuen urrian udalak eta parkea 2026aren amaierarako erabilgarri egotea aurreikusten du. Marrutxipi eremuak 6.109 metro koadroko lursailean bi sarrera, komunak, ur jolasak, basoa, soropil gainazalak, bide sare eta landaredia jarriko dituzte. Beterie, proiektua duela zortzi urte auzotarrekin diseinatu moduan gauzatuz gero. •



Barkaiztegi bideko lanak azkartzeko eskatu dute

Otsaila bukaeran, manifestazio jendetsu bat egin zuten auzoan, udalari eskatzeko Martutene eta Barkaiztegi lotuko dituen trenbide gaineko oinezkoentzako pasabidearen lanak azkartzeko bitartekaritza egitea. Martxoan, udalbatzak onartu zuen zeregina. Horrekin «pozik» agertu zen Sarroeta auzo elkarteak, baina bitartean bidea «argiztatzeko» eta bideko mendi magala egonkortzeko galdegin zion. •



Guardetxea berriro okupatu dute auzoari begira aritzeko

Sei urtez hutsik egon ondoren, Maiatzaren Lehenean dozenaka lagun sartu ziren Guardetxera, gaztetxe bihurtzeko asmoz. Udaltzaingoak salaketa jarri eta okupatutako etxea husten saiatu zenez, Alde Zaharreko Gazte Asanbladako hainbat kide udaletxera joan ziren maiatzeko udalbatzarrean «udal gobernuari bilera bat eskatzeko», eta istiluak izan ziren. Horregatik, sei gazte deklaratzera deitu zituzten abenduan. Hustea, berriz, urtarri-lean epaituko dute. •



Auzo elkarteak eta Lore Baratzak egitasmoak kandelak piztu dituzte

Auzoari eragingo zion proiektu bat gelditzeko piztutako mugimendua izan zen Uliako Auzo Elkartearen sorburua 1975an eta bide beretik jarraitu du bost hamarkadotan ere. Ingurua itxuraldatuko zuten mehatxu ugari gelditu badituzte ere, elkarteko kideei noizean behin galtzea ere egokitu zaie. Uliako Lore Baratzak egitasmoak, berriz, hamarkadako ibilbidea osatu du bizikidetzaz sortu eta tokia parke moduan babesten. •




Errebotearen historia jaso dute, plazan eta iruditan

Iraila bukaeran ospatu zuten Zubietako Errebote Egunaren bezperan, Errebote plazari buruzko plaka jarri zuten. Pilota joko zaharrenetakoari eta lekuari berari buruzko informazioa jaso zuten bertan, hari buruzko ezagutza zabaltzeko asmoz. Zubietako herri eskolak eta bai Usurbilgo, bai Donostiako udalek antolatutako ekitaldian ezagutarazi zuten oroigarria. Biharamunean, berriz, *Errebotea. Plaza-joko baten muina* bideoa estreinatu zuten leku berean. •

Jaien Donostia

Festazaleak eta kaskarinak omen ginen garai batean donostiarrak, edo ospe hori genuen behintzat. Gaur egun, ospea bestelakoa da, ordea, baina garai batean segur aski horren-horren festazaleak izango ez ginen moduan, gaur egun ez gara horren gatzgabeak ere. Eta horren erakusgarri, negutik negura urte osoan zehar ospatu ditugun jai guztiak: sansebastianak, inauteriak, auzo eta herrietako jaiak (batzuetan, bat baino gehiago), Gau Beltza, santomasak eta abar. Hemen dituzue urte honetan zehar egindako zenbait argazki, baina denak gure webgunean aurkituko dituzue. 2026an gehiago! •







Irutxuloko Hitzaren 20. urteurreneko ekitaldia, San Telmo museoan.  JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

Beste hogei, soilik zuk nahi baduzu

IRUTXULO KO HITZAREN hogei-garren urteurrena ospatu dugu 2025 osoan zehar, lelo argi batekin: *Mundu osoa da tokikoa*. Hain zuzen ere, hogei urte daramatzagu tokikotik, Donostiatik eta bere auzo guztietatik, mundu osoa euskaraz kontatzen. Eta hori bera egiten jarraitu nahi dugu.

2025a ez da nolanahiko urtea izan IRUTXULO KO HITZARENTZAT, izan ere, hogei urte behin baino ez dira betetzen. Lehenik eta behin, beraz, eskerrik beroenak, lantalde osoaren izenean, proiektuaren parte zareten komunitateko pertsona eta eragile guztiei, hemendik pasatutako langile eta kolaboratzaile guztiei, Hitzakideei, iragarleei, Bagera Euskaltzaleen Elkarteari eta *Berria*-ri.

1994tik Donostiaren berri ematen zuten *Irutxulo* astekariaren lekukoa hartuz, 2005eko otsailaren 17an jaio zen IRUTXULO KO HITZA, Bagera

Euskaltzaleen Elkartearen eta *Berria* Taldearen eskutik. Egunkari gisa jaio ginen orduan, astekari izatera itzuli ginen gerora eta paperean zein digitalean dihardugu gaur egun, egunero-egunero Donostiaren berri euskaraz ematen. Donostiarrek euskaraz informatuak izateko beharra zutenarekin konbentzitu jaio zen hedabide hau, eta konbentzimentu irmo horrekin jarraitzen dugu lanean.

Argia saria

2025a ezin hobeto hasi genuen, izan ere, *Argia* astekariak prentsako Argia Saria eman zigun urtarrilean, 2024an zehar «ultraeskuinaren gorakadaren inguruan egindako jarraipenagatik». Hain zuzen ere, azken urteotan, arrazakeriaren eta eskuin mutur berriaren diskurtso eta praktikei aurre egin behar izaten ari gara Donostian, eta arrazakeriaren aurrean, koadre-

noak, boligrafoak eta kamerak hartu, eta tokikotik, Donostia asko sartzen diren Donostia bat kontatzera abiatu gara; donostiar guztien Donostia.

2025aren hasieran egin genuen moduan, berriz ere, *Argia*-ri eskerrak ematea dagokigu, gurearen moduko hedabide txiki batentzat aitortza garrantzitsua izan baitzen sari hori jasotzea. Bultzada handi horrekin, beraz, 20. urteurreneko urte bereziari ekin genion.

Komunitatea batuta

Otsailaren 17an bete genituen hogei urte, eta egun horretan bertan egin genuen urteurreneko ekitaldi nagusia, San Telmo museoan. Hunkigarria izan zen aretoa beteta ikustea: norbanakoak, gure komunitateko kideak eta hiriko hamaika eragiletako ordezkariak bertaratu ziren, besteak beste. Orduko Donostiako alkate Eneko Goiak, Bagera elkarteko Amets Iberok eta IRUTXULO KO HITZAKO zuzendari Beñat Parrak hartu zuten hitza.

Goiak, besteak beste, hedabide honek euskararen normalizazioan duen papera nabarmendu zuen: «Donostia euskararen hiria bada, zuena

bezalako hedabideari esker ere bada». Iberok, bestalde, IRUTXULOKO HITZAK Donostiako euskal komunitatean duen garrantzia goraipatu zuen: «Irakurtzea, harpidetzea eta zabaltzea izango dira euskaraz bizitzaren jarraitzeko giltza». Azkenik, Parrak tokiko kazetaritzaren garrantzia nabarmendu zuen: «Tokikoa begiratzeko modu bat da. Behetik gora begiratzeko modu bat, gertutik begiratzeko modu bat. Hiriaren argazki eta diagnostiko zabalena egiteko modu bat. Garaia kronika egiteko modu bat». Era berean, hedabidea babestera deitu zituen herritarrak: «Argi dugulako bakarrik ezin dela ezertxo ere egin, saretzea dela bide bakarra».

Ekitaldia ixteko, mahai inguru mamitsua egin zuten hiru belau-nalditako hiru donostiar ezagunek: Aizpea Goenaga aktoreak, Beñat Gaztelumendi bertsolariak eta Sua Enparantza dantzari eta aktoreak. Hausnarketa interesgarriak plaza-ratu zituzten hirurek. Bat nabarmentzearren, Gaztelumendik bere azken hitzartzean mahai gainean jarri zuena: «*Periodikua*, egun batean, Irutxuloko Hitza izatea opa dizuet».

Mundu osoa da tokikoa

Otsailaren 17 horretatik, *Mundu osoa da tokikoa* leloa darabilgu IRUTXULOKO HITZAN, horrekin konbentzitututa baikaude. Argi dugu tokikotik edozer gauza kontatu dezakegula eta tokiko kazetaritzak ezinbesteko funtzio bat betetzen duela gizartean, are gehiago euskarazkoak. Izan ere, tokiko kazetaritzaren galdera bakarrik ez dira «zer gertatu da?». Edo, «zer diote gertatu dela?». Tokiko kazetaritza gai da galdera ezberdinak egiteko. Nola bizi dira donostiarrak 2025ean? Zerk kezkatzen ditu? Zerk poztu? Zertan sinisten dute? Zergatik mobilizatzen dira? Zertan irabazi dute? Zer istorio dituzte kontatzeko? Non erosten dute? Kontxara begira bizi al dira denak? Zer gertatzen ari da Altzan, Loiolako Erriberan, Egian edo Ibaetan?

Arazo orokorrak lurreratzeko gaitasuna du tokiko kazetariak, herria-



Lankide ohiekin eta kolaboratzaileekin egindako brindisa. IRUTXULOKO HITZA

ren bizipenetatik garaia kronika egiteko eta komunitatea eraiki eta saretzeko. Hiriaren historiari beste begirada batetik begiratzeko gai ere bada tokiko kazetaritza: aristokraten *belle époque*-ko hiria zen soilik Donostia ala langileak ziren herritar gehienak, orduan ere? Donostiaren kemenak ez al zuen altxamendu frankista garaitu? Donostia ez al zen izan «festarik bear bada, bego Donostia»-ren hiria?

Mundu osoa da tokikoa leloarekin, hori guztia eta askoz gehiago laburbildu nahi izan dugu urte honetan zehar, eta, noski, ildo horiei eta gure balioei jarraiki lan egiten jarraitu dugu. Eta hala egiten jarraituko dugu. Tokikotik eta euskaraz, nola bestela?

Urteurrena, urte osoan

Hogeigarren urteurrena 2025 osoan zehar ospatzen aritu gara, momentuak hala merezi zuelako. Horren erakusgarri dira, besteak beste, urteurrenaren harira argitaratutako eduki bereziak –astekari monografikoa argitaratu genuen otsailaren 2lean– eta gure komunitatearekin antolatutako jarduera batzuk: zuhaitz landaketa Haritzalde Naturzaileen Elkartearekin, Donostiako hainbat emakume kirolariren bizipenak eta erronkak partekatzeko mahai

ingurua eta Dinamita Tour taldearekin antolatutako *Atzera begira*, *Dinamitarekin* memoria historikoari buruzko ibilaldia.

Urtea ixteko, zita berezi bat eduki genuen azaro amaieran: lankide ohiekin eta kolaboratzaileekin brindisa. Hogei urteotan, hamarnaka langile eta kolaboratzaile pasatu dira IRUTXULOKO HITZATI, eta argi dugu horien guztien lanari eta konpromisoari esker iritsi garela honaino. Horregatik, elkar zoriontzeko, bizipenak partekatzeko eta elkar babesteko topaketa izan zen, benetan ederra.

Izan ere, IRUTXULOKO HITZA Donostiako euskal hedabide bakarra dela bezain argi daukagu denok egiten dugula posible proiektu hau: langileok, kolaboratzaileek, komunitateak, iragarleek, irakurleek eta Hitzakideek. Horregatik, berriz ere, eskerrak eman nahi dizkizuegu zuei guztiei, proiektu eder hau posible egiteagatik.

Beste hogeitaz urtez eta askoz gehiago jarraitu nahi dugu Donostia den horretan euskaraz kontatzen, baina hori ezingo dugu egin zure babesik gabe. Zuk babesten bagaituzu, hemen jarraituko dugu, Euskararen Hiria eraikitzen, Donostia asko dituen Donostiaren berri ematen, donostiar guztientzat idazten eta, zergatik ez, urteurren gehiago ospatzen. Eskerrik asko! ●



Hiriko hainbat etxebizitza.  JOSEBA PARRON SAN SEBASTIAN

Donostia tentsio handiko eremu izendatu izana nahikoa da?

Donostiako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak maiztean iragarri zuten hiria tentsio handiko eremu izendatzeko erabakia. Ordea, uztailan sartu zen indarrean, Estatuko Aldizkari Ofizialak argitaratu ostean. Horrela, alokairuen prezioari eusteko prozedura hori arautzen duen EAEko lehen hiriburua da.

Tentsio handiko eremu izendatzea Etxe Eskubidearen Legeak jasotzen duen mekanismo bat da, aurreko urteetako igoerak neurritz kanpokoak izan diren eremuetan alokairuen prezioei eusteko aukera ematen duena. Horrela, erreferentziazko prezioen indize bat ezartzen du etxebizitzaren alokairuen prezioetarako, eremuan deklaraturako alokairuen zerga datuetan oinarritzen dena, eta horren gainean, etxebizitzaren edukitzaile handi guztiak behartuta daude beren kontratuen prezioak finkatzera.

Donostia tentsio handiko eremu izendatu zenean, Eneko Goia zen alkatea. «Urrats egokia» zela adierazi zuen, «baina ez nahikoa» etxebizitza eskuratzeko arazoa arintzeko: «Etxebizitza babestuetan askoz ere esku hartze gehiago behar ditu». EH Bilduk ere adierazi zuen «ez dela nahikoa». Neurriak eraginkorrak izatea ahalbidetuko luketen erreferentzia indizeak falta direla gaineratu zuten. Kaleratzeak Stop plataformak, berriz, prezioen indizea argitaratzeko eskaria egin zuen, «bestela ezin direlako mugatu edukitzaile handien alokairuaren prezioak». ●

1.300 etxebizitza inguru, eraikuntza fasean

Donostiako Udalak hainbat etxebizitza garapen aurreratu eta bideratu ditu aurtien. Loiolako Lora-tegi Hiria da aurreratuen, lehen 70 bizilagunek etxebizitza berrien giltzak jaso dituztelako. Guztira, 264 dira eraikiko direnak. Urratsa egin duen beste proiektua Ibaetako Infernua da, Zubiberri izena hartuko duena. Han zeuden etxe zaharrak bota, lurak lehengoratu, eta dagoeneko hasi dituzte 540 etxebizitza eraikitze lanak. Erdiak babes publikokoak izango dira. Bestalde, Añorga Txikin 248 etxebizitza eraikitze proiektua behin betiko onartu du udalak, bizilagunek gehiegi direla berretsi arren. Illarrako garapenari dagokionez, 260 etxebizitza eraikitzen hasteko prozesua abiatzean da. Azkenik, Herrerako Zardoya eremuko hirigintza garapenak ez du aurrerapausorik izan, eta handik gertu dagoen Auditx Akular berdegunean 3.000 etxebizitza eraikitze egitasmoa mahai gainean dago, berriz ere. ●

San Bartolomek ez du merkataritza zentrorik eta lurpeko aparkalekurik izango

Donostiako Udal Gobernuak, Eneko Goia orduko alkatea buru zuela, presazko agerraldi bat egin zuen apirilaren 11n. San Bartolome muinoan merkataritza zentro bat eta lurpeko lau solairuko aparkaleku bat eraikitzeko proiektuaren lizentzia bertan behera uzteko borondatea agertu zuten. Egun batzuk lehenago, apirilaren 2an, San Bartolomeko herritarren plataforma aurkeztu zuten udaletxean. Odon Elorza alkate ohia, Elkarrekin Donostia udal taldea eta Erdian Bizi auzo elkarteak dira sustatzaileetako batzuk. Lehenik, merkataritza zentroaren eta aparkalekuaren proiektua baztertzeko eskatu zuten, eta, gerora, Elorzak ekainean egindako proposamena berretsi zuten: San Bartolomeko muinoa hiri parke bat bihurtzea. Ondoren, San Bartolomeko horma lorategi bertikal handi batekin estaltzea eskatu zuten.

Apirileko agerralditik hilabeteak pasatu ahala, herritarren plataformak hainbat agerraldi egin zituen. Batetik,



hirigintza proiektuaren lizentzia iraungi zela adierazteko, eta udal gobernuari aurrerapausoak eskatzeko. Azkenik, abenduan, Jon Insausti alkate berriak adierazi zuen udalak apirileko borondatea berresten duela, eta San Bartolomen ez dutela merkataritza zentro bat eta aparkaleku bat eraiki nahi. •



Bretxa «biziberritzeko» neurriak hartu ditu udalak

Azaroan urtea bete zen Donostia Sustapenak Bretxako merkataritza gunea kudeatzeko emakida hartu zuenetik. Orduan, Bretxa «biziberritzeko» neurriak iragarri zituen udalak. Arrandegia eraikineko lanak egiteko 11,7 milioi euroko aurrekontua onartu zuen Sustapenak, eta obrak bost fasetan egingo dituztela jakinarazi zuten. Bigarrena da esanguratsuen, azoka berria beheko solairuan kokatuko dutelako, eta han jarriko dituzte baserritarrak. Hain zuzen ere, Sustapenak otsailean erabaki zuen baserritarrak Arrandegi eraikin barruan kokatzea. •

HERRI AMETSA
IKASTOLA

www.herriametsa.eus

DONOSTIA 943 39 35 20

Guardaplata bidea, 28

Ikastola txikia
Familia handia

Gurekin amets egin nahi?



GOE eraikina urrian ireki zuten.  **NAGORE GARMENDIA**

Zabalik da GOE, polemikaz eta bizilagunen protestez inguratuta

Urrian inauguratu zuten Gastronomy Open Ecosystem (GOE), Basque Culinary Centerren eraikin berria. Manteon zegoen berdegune bakkarraren lursailean, hoguei hilabeteko denbora errekorrean altxatu dute. Gastronomiaren, ikerketaren eta berrikuntzaren arteko elkargune izan nahi duen proiektua burutu izanak, ordea, ez du oraindik erabat baretu hasieratik piztu duen polemika.

Urriaren 20ko irekiera ofizialean erakundearen ordezkaritza zabala izan zen, tartean, Imanol Pradales lehen-dakaria edota Eider Mendoza ahaldu nagusia, baita izen handiko sukaldariak ere. Bertan, Nekane Arzallus behin-behineko alkateak adierazi zuen berrikuntzaren aldeko apustuaren ikur izan behar zuela GOEk eta hiriarentzat «ona» izango zela. Kalean, ordea, bestelako iritzia zuten Nafarroa etorbidea bete zuten dozenaka herritarrek.

Hiriko 23 kolektibo eta erakunderen atxikimenduari, protesta egin zuten sustatzen ari diren hiri eredu gaitzesteko, herritarren beharrei erantzuten ez dieten hirigintza proiektuak eta operazioak «inposatzen» ari baitira, eta operazio urbanistikoak dakarren «espolioa» salatzen. Izan ere, lursaila, eraikitakoaren balioa eta eraikina bera diru publikoarekin finantzatu dela kontuan izanda, BCCk jaso ditu «150 milioi baliabide publikoen kontura».

Askotariko kexak

Bizilagunen mobilizazioak eta kritika bai politiko, bai soziala izan ditu bidelagun egitasmoak ezagutarazi zuten unetik. Horien aurrean, ordea, udal gobernua «mespretxua» erakutsi duela nabarmendu izan dute eta erabakitzeke prozesuan auzotarren parte hartzea oso mugatua izateaz gain, ez direla Gros eta Uliu auzoek dituzten beharrak aztertu.

Tramitazioa ere ez da gardena izan, eta EH Bilduk kritikatu zuen GOE inauguratu izana irekitzeko eta martxan jartzeko beharrezko lizentziarik gabe, eta administrazio prozedurak behar bezala bete ez izana egotzi zien erakunde arduradunei. Bestalde, Palestinako genozidio betean, BCCk Israelgo hainbat enpresekin dituen harremanak ere deitoratu dituzte zenbait eragilek.

Danimarkako Bjarke Ingels Group (BIG) arkitektura estudioak diseinatutako Olatuen bidea eraikinaren itxura, egilearen hitzetan, «Uliu menditik itsasoraino Santiago Bideak egiten duen formari keinu bat da». Inaugurazio ofiziala baino hiru egun lehenago herritarrek bertatik bertara ezagutzeko bisita gidatuak egin zituzten eta prestatutako txanda guztiak bete ziren.

Aste batzuk geroago, ordea, bestelako kritika batzuk piztu ziren, esaterako, Eguzki talde ekologistak ohartarazi zuen eraikineko beirate handiek hegaztien talka eta heriotzak eragin ditzaketela, eta horiek saihesteko neurri zehatzak eskatu zituen. ●



Kuartelen salerosketak hirigintza garapenari bide emango dio

Loiolako kuartelen salerosketa atzerapen eta zailtasun ugari jasan dituen prozesu bat izan da, baina uztailaren 23an, aspaldiko aldarrikapen hori gauzatzea lortu zuen udalak. 73,3 milioi euroren truke, salerosketa sinatu zuten Eneko Goia alkateak eta INVIED Espainiako Defentsako Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamenduko Institutuko zuzendariak. Espainiako Auzitegi Gorenak kuarleteko eraikin nagusiak babes-teko agindua bertan behera utzi zuen otsailean, bide emanez 17,5 hektareako eremuan 1.700 bat etxebizitzako hirigintza garapenari. Militarrek lau urte izango dituzte eremua uzteko. ●

Illunbe Berriaren etorkizuna eraikitzen hasi dira

Udal gobernuak Illunbe Berria eta ingurua berritzeko aurreproiektua aurkeztu zuen urte hasieran. Asmoa, zezen plaza «zaharkitua» erabilera anitzeko pabiloi bihurtzea da. Bi kantxa izango ditu, bat, 15.000 ikuslerentzako edukiera duena, eta bestea, 3.000 ikuslerentzako. Azken honek Gaska ordeztuko du. Proiektuak 76 milioi euroko inbertsioa aurreikusten du eta 2030erako bukatua egotea espero dute. Bide horretan sakonduz, uztaillean



aisialdi gunea eraitsi zuten. Guneko zati batean aipatu pabiloia altxako dute, bestean, berriz, Columbus inbertsio funtsak parke teknologiko berria eraikiko du, 80 milioi euro inbertituta. ●

T 10 URTE. NAHI BESTE TABAKALERA



2
0
1
5



2
0
2
5



tabakalera.eus

10 URTE. NAHI BESTE TABAKALERA T



Atxokako geltokiaren bigarren nasa eta Egiako tunela zabaldu dituzte

AHTaren lehen terminala izango den Donostiako Atotxako geltokiaren bigarren nasa zabaldu zuten, iragan azaroan. Geltokiko ate nagusia irekitzeaz gain, lurpeko atari berria ere ireki zuten, nahiz eta oraindik lanetan jarraitzen duten. Etorkizunean sarbide zuzena izango du Egiako lurpeko pasabidetik ere, ate nagusitik igaro beharrik gabe. Hain zuzen ere, Egi eta Erdialdea lotzen dituen lur azpiko tunela ekainean zabaldu zuten, hiru urtez Atotxako lanengatik itxita egon ondoren. •

Hainbat saltokik pertsiana jaitsi dute, berriro ez altxatzeko

Boulevard 9 jatetxea izan zen zerrenda beltzeko lehena, baina haren ondoren, tamalez, beste asko etorri dira: Maite taberna, Urepel jatetxea, Victoria Cafe dantzalekua, Ponpoxita arropa denda, Imak Ile apaindegia edota Al Limite marko denda. Tarte batez bada ere, Taba, lizentzia argitu artean; edo sutea izan zuen Txirrita taberna. Zurrumurru kioskoak urte amaieran itxi zituen ateak, aurrez, bide bera jarraitu zuen El kiosko de la Rosik. Gozozaleek ere bi galera garrantzitsu izan dituzte: Izar eta La Concha gozotegiak. •



Satrustegi dorreak babesa galdu du eta Iruñe Etxea eraitsi dute

Martxoan, Kontadores fabrika zaharraren parean zegoen 1932ko Iruñe Etxea eraitsi zuten. Orain, galtzeko arriskuan egon daiteke Igeldoko Satrustegi dorrea, babesten duen dekretua aldatu baitu Jaurlaritzak. Honek «birgaitze integrala» aurreikusten du eta hotelari bidea irekitzen dio. Horrez gain, Añorak salatu du Arte Ederrak eraikinaren fatxada babestuak bota eta berriro eraiki dituztela, legez kontra, zaharberritu beharrean. Ondare historikoaren aurkako delituri baden argitzeke, fiskaltzak zantzuak topatu ditu Ategorrietako Galtzada Zaharreko Mari Carmen eta Mirakontxa pasealekuko Vista Eder etxeen botatzean. •

Arkaitzerrekaren erreka stoa «porlanez suntsitu» dutela salatu dute

Zubietako erraustegiak eragindako kutsadura arazoak konpondu beharrean, inguruko lurak are gehiago kaltetzen jarraitzen du. Izan ere, Arkaitzerreka erreka bera eta haren inguruak suntsitu eta porlanez bete izana salatu zuen urrian Errausketaren Aurkako Mugimenduak, zenbait irudi zabalduta. «Gipuzkoako herritar guztiek ikusi beharko litzukete desastre horren irudiak», mugimenduaren iritziz. Ez da, ordea, erraustegiak aurtan eragindako ezbehar bakarra izan, salaketa baino egun batzuk lehenago, sute hasiera txiki bat izan baitzen lehen faseko tamaina handiko hondakinak birrintzeko hobian. •



Erdialdeko gune batzuk berritu dituzte

Metroaren lanek aurrera egin ahala, Erdialdeko hainbat gune egokitzen eta berritzen ari dira. Uztailan, Easo kale berritua ireki zuten behin betiko. San Martzial kaletik San Martin kalera doan zatian, zeharbideak lehentasuna ematen die oinezkoiei orain, bost metrotik gorako zabalera duten espaloiekin eta autobus eta taxiaren garraio publikorako erreserbatutako errei bakarrarekin. Hau da, ezin dira ibilgailu pribatuak pasatu. Bestalde, San Bartolome kaleko urbanizazio lanak abuztuan bukatu zituzten. Horrela, Easo eta Urbieta kaleen arteko 80 metroko tartea berreskuratu zuten herritarrentzat. •




Parte Zaharreko eta kaiko plan berezia onartu dute

Donostiako Udal Gobernuak apirila bukaeran eman zion hasierako onarpena Parte Zaharreko eta kaiko plan bereziari. 1995. urtean onartutakoa ordezkaturiko du, eta Eusko Jaurlaritzaren 2019ko Parte Zaharra eta Kaia Monumentu Multzo izendapenak ezartzen duen araudiari erantzuten dio. Horrela, kaiko 7. eta 8. atarietako bizilagunen aspaldiko eskaerari erantzungo diote. Izan ere, hogeitau urte daramatzate erakundeek euren «infraetxei» irtenbide bat emateko zain. •

Zmare jatetxeari 170.857 euroko zigorra ezarri diote

Donostiako Udalak Zmare jatetxeari irekitako zigor espedientea ebatzi zuen, abuztuan. Horrela, bi zigor ezarri zituzten Zurriola Ocean Center (ZOC) aldi baterako enpresa elkarteari, establezimenduaren kudeatzaileari. Batetik, 4.500 euroko isuna ordaindu beharko du ZOC enpresa elkarteari inguruko arauak urratzeagatik. Bestetik, 166.357,17 euro pagatu beharko dituzte onarturikoak baino bezero gehiago hartzeagatik, eta irabazia areagotzeagatik. Martxoan, Gipuzkoako Kostalderako Probintzia Zerbitzuak zigor espedientea ireki ziola udalari, Zmarek erabiltzeko baldintzak «ez betetzeagatik». •



**Bihur zaitez AHOBIZI
HITZEZ Euskaltegian**



GROS-en
ikas ezazu



Eneko Goia eta Jon Insausti, Zuloaga plazako ekitaldian. EAJ

Alkate aldaketaren urtea

Hamar urte pasatu ditu Eneko Goia Laso jeltzaleak Donostiako alkate lanetan, baina 2025a izan da bere azken urtea alkate gisa. Hain zuzen ere, urriaren 2an iragarri zuen kargua uztera zihoala, eta hala egin zuen hilabete horretako 16ko udalbatzarrean. «Hamar urteko zikloa itxita» utzi zuen alkatetza Goiak, hurrengo udal hauteskundeetatik urte eta erdira, «une egokia» zela iritzita. Lau aldiz izan da Goia EAJren alkategaia Donostiarako, eta 2011n izan ezik, beti irabazi du, 2023ko udal hauteskundeetan jeltzaleek 10.000 boto inguru galdu bazituzten ere.

Horrela, «arriskutsua da inertzietan erortzea, eta garrantzitsua hiri proiektuak dira», nabarmendu zuen jeltzaleak, baita «lasai» zihoala adierazi ere, «alderdian harrobia» dagoelako eta «talde on bat gobernuan, programa on batekin». Era berean, hiriko hainbat proiektu «bideratuta» utzi izanagatik ere lasai agertu zen: Donostiako Metroa, AHTaren geltokia eta Loiolako kuartelen operazioa.

«Harrobia» Jon Insausti Maisterrena Euskara, Kultura eta Turismo zinegotzia zela zioten askok eta askok, eta urriaren 3an baieztatu zen horixe bera. EAJk Zuloaga plazan egindako ekitaldi batean jakinarazi zuten Insausti zela aginte makila hartzeko aukeratua.

Urriaren 16ko udalbatzarrean, aurreikusita zegoen

moduan, kargua utzi zuen Goiak, azken hitzartze sentitu eta eskertu batekin: «Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu». Nekane Arzallus bi astez izan zen Donostiako behin-behineko alkate, eta urriaren 29an egindako udalbatzarrean hartu zuen aginte makila Insaustik. «Tope saiatuko naiz, kontatu nirekin, hauxe naiz ni, donostiar guztion alkate berria, Jon, alkatea», nabarmendu zuen. Ezustekorik ez bada, beraz, 2027ko maiatzera arte, gutxienez, Donostiako alkatea izango da Insausti, eta orduan aurkeztuko da lehen aldiz alkategai gisa donostiarren aurrean.

Horrek, noski beste aldaketa batzuk ekarri zituen EAJk eta PSE-EEk osatzen duten udal gobernuan, Insaustik ordura arte zituen karguak birbanatu behar izan zituztelako. Hain zuzen ere, Olatz Yarzak hartu zuen Turismo departamentuaren ardura, Kerman Orbegozo Uribe Euskara departamentuarena eta Ana Lopez Loiarrek Kultura departamentuarena. Bestalde, Goiak udalbatzan eta udal talde jeltzalean utzitako hutsunea Idoia Gracia Mongek bete zuen, eta Auzoetako eta Herri Partaidetzako departamentuaren ardura hartu zuen. Horrez gain, alderdi jeltzalearen bozeramailea Yarza da orain.

Udaleko zinegotzi aldaketekin amaitzeko, aipatu beharrekoak dira beste alderdietan urte honetan zehar egondako aldaketak. Alde batetik, EH Bilduko Olaia Duarte Lopezek udala utzi zuen otsailean, Espainiako Senatuan bere jardunarekin jarraitzeko. Bere hutsunea Sandra Barrenetxea Diezek bete zuen. Bestetik, PPko zinegotzi Jorge Motak ere zinegotzi kargua utzi zuen, «arrazoi pertsonal eta politikoengatik», Goiaren egun berean. Bere lekua Tomas Pascua Martinek hartu zuen. ●

'Jesusen Bihotza' eztabaidagai

Donostiako Udaleko Memoria Historikoaren Aholku Batzordeko sinbologia frankistari buruzko lantaldeak bi proposamen eta horiek justifikatzeko dokumentazioa aurkeztu zituen ekainean: Urgulleko *Jesusen Bihotza* eskulturari buruzko bat eta eraikin pribatuetako sinbologia frankistari buruzko beste bat. Aurreikusi zitekeen moduan, lehenengoak sortu du eztabaida handiena hiria urte honetan zehar.

Zehazki, lau proposamen egin zituen lantaldeak *Jesusen Bihotza*-ri buruz: estatuko administrazio orokorrari eskatzea eskultura sar dezala «memoria demokratikoa-ren aurkako sinboloen katalogoan», eskulturaren 75. urteurrena ez ospatzeko, eskulturaren «inolako birmoldaketa edo konponketarik» ez egiteko eta Urgulleko gazteluaren «jatorrizko izaera berreskuratzea».

Izan ere, lantaldearen ustez, 1939ko maiatzaren 31ko udal bilkurako aktan oinarrituta, ondorioztatu daiteke eskulturak «erregimen frankista eta haren ideologia nazional-katolikoa goraipatzeko sinbolotzat hartzeko ezaugarri eta baldintza guztiak betetzen dituela». Hain justu, aktak dio udalak 100.000 pezeta jarri zituela monumentua eraikitzeko, horrela argudiatuta (gaztelaniaz): «Gurutzada Nazioneleko martirien uko egite heroikoa adierazpen handi batean betikotu nahi duen ekimena da».


Orduan Donostiako alkate zen Eneko Goia, aldiz, ez zen aipaturiko lantaldeak ebatzitakoarekin ados agertu, eskultura eraikitzeko inizatiba «36ko gerraren aurrekoa» zela eta «Donostiako skyline-aren parte» dela argudiatuta. Hain zuzen ere, lantaldearen proposamenak ez zituzten onartu udalbatzarrean. Hala ere, frankismoaren biktimek Espainiako Gobernuari ofizialki eskatu zioten *Jesusen Bihotza* monumentu frankista gisa katalogatu dezala, «froga nahikoa dagoelako hori egiteko».



Beste sinbolo batzuk

Jesusen Bihotza ez da izan aurreko jomugan egon den frankismoarekin zerikusia duen Donostiako monumentu bakarra. Alde batetik, nabarmentzekoa da Polloeko mau-soleo frankistako gurutzea bota dezatela eskatzeko bide judiziala abiatu zuela Gipuzkoako CNTk maiatzean. Bestetik, aipatu behar da Enai gazte antolakunde independentistak abenduan bota zuela Igeldoko mendi tontorrean zegoen gurutze frankista.

36ko gerrarekin lotutako 2025eko azken albiste bat ere aipatu behar da: Jacinto Polo Rios miliziano anarkista donostiarraren gorpuzkien identifikazioa. Aranzadi Zientzia Elkartek uztailan lortu zuen identifikatzea, Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) hilerrian; 1936ko abenduaren 4an hil zuten Polo, Otxandioko frontean, 20 urte zituela. ●



Oiartzun



● Gozotegia: Ijentea, 2. Tel.: 943-42 62 09 ● Lantegia: Jai Alai, 6. Tel.: 943-29 09 07
 ● www.pasteleriaoiartzun.com ● obrador@pasteleriaoiartzun.com





Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia

943-89 95 16 - 012958aa@hezkuntza.net

Rosa Zarra: jakina zena, ofizialki aitortua

30 urte bete ziren ekainean Rosa Zarra donostiarra hil zenetik. 30 urteotan, Zarra «arrazoi naturalengatik» hil zela izan da bertsio ofiziala, sabelean Ertzaintzaren pilotakada bat jaso eta zortzi egunera hil bazen ere. Hain zuzen ere, 2025eko martxoan, azkenean, jakina zena onartu zuen Eusko Jaurlaritzak: Zarra pilotakadaren ondorioz hil zela.

Horrela, ekaineko azken asteburuan urtero egiten duten omenaldi ekitaldia (1995eko ekainaren 30ean hil zen) berezia izan zen, lehenengo aldiz, senide eta lagunek aitortza ofiziala eskuetan zutela omendu baitzuten Zarra. Ondoren, azaroan, Donostiako Udalak haren omenezko plaka ofiziala jarri zuen Amara Berriko Olaeta plazan, Zarrak Ertzaintzaren pilotakada jaso zuen lekutik gertu. Senideak «pozik» agertu ziren Jaurlaritzaren eta udalaren aitortza ofizialarekin,



baina oraindik «hutsuneak» daudela salatu zuten, Ertzaintzaren indarkeriak ondorio larriak izaten jarraitzen duelako (Iñigo Cabacas, Amaya Zabarte eta abar) eta garaiko arduradun politiko eta polizialek ez dutelako gaiaren inguruko ardurarik hartu. ●

ETaren beste lau biktimak, espazio publikoan omenduak

Aurrerapausoak egon dira 2025ean ere Donostiako Udalaren «hirian hil ziren terrorismoaren eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimen memoria eta ikusgarritasuna espazio publikoan berreskuratzeko» egitasmoan. Rosa Zarraren omenezko plakaz gain (goiko albistean xehetasunak), alde batetik, uztailan, 1979an eraildako Gines Pujante Garcia, Juan Bautista Peralta Montoya eta Miguel Orenes Guillamont Espainiako Poliziako kideen omenezkoak jarri zituzten, Loiolan. Bestetik, urrian, 1978an hil zuten Diego Fernandez-Montes infanteriako koronel erretiratuaren omenezkoa jarri zuten, Miramar kalean. 36 dira dagoeneko Donostiak dituen halako plakak. ●



40 urte Mikel Zabalba gabe

2025eko azaroan eta abenduan, 40 urte bete ziren Guardia Zibilak Mikel Zabala Altzako bizilagun eta Donostiako autobus gidaria atxilotu, torturatuta hil eta Bidasoa ibaian agertarazi zuenetik. Urteurrenaren harira, askotariko jarduerak antolatu zituzten; besteak beste, ekitaldia Intxaurrendoko kuartelaren aurrean, Zabalzaren omenezko autobus ibiltaria eta Bulebarrean egindako ekitaldi handia. Gogoratu behar da Zabalba biktimak gisa aitortuta dagoela ofizialki Hego Euskal Herrian, baina Espainiako Estatuaren bertsio ofizialak Guardia Zibilaren kontakizuna izaten jarraitzen duela. ●

Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiaren aurrerapausoak Donostian

GEBehatokiak lan nekaezinean dihardu, hamarkada luzez Euskal Herrian izandako tortura eta bestelako polizia eta estatu gehiegikeriak ikertzen eta egia, justizia eta erreparazioa bilatzen. Horrek fruitu batzuk eman ditu Donostian 2025ean: Montxo Martinez Antiaren heriotzaren inguruko frogak mahaigaineratu, eta Eusko Jaurlaritzari biktima gisa aitortzeko eskatu zioten urrian; Pello Alcantarillak torturengatik kereila jarri zuen Diego Perez de los Cobos guardia zibilararen aurka hilabete berean eta Raul Fuentes Villona euskal presoak bere tortura kasua berriz irekitzeko eskatu zuen azaroan. •




Gehiago dira kalean daudenak

Aurrerapauso handiak eman dira azken urteotan euskal presoek auzian, eta 2025an ere eman ditu horren inguruko albiste batzuk Donostian. Hain zuzen ere, martxoan, Balbino Saenz Olarra preso donostiarra aske gelditu zen, eta Espainiako Estatuak euskal presoek aplikatu dien zigorraren batuketara baliogabetzeko erreforma baliatuta aske gelditutako lehenengoa izan zen. Bestalde, abuztuan, Jose Mari Dorronsoro utzi zuten aske, 32 urtez preso egon ostean. Hamaika dira orain zigorrak betetzen jarraitzen duten euskal preso donostiarak, denak Euskal Herriko espetxeetan. •

Donostiako hainbat eragileren «beto politikoa» salatu du MSk

Donostiako Mugimendu Sozialistak (MS) zalaparta sortu zuen komunikatua argitaratu zuen azaroan, haien kontrako «beto politikoa» salatzeke eta ustez hori bultzatzen duten herri mugimenduko eragileak salatzeke. Alde Zaharreko Gazte Asanblada (AZGA), Donostiako Piratak, Ernai, ezker abertzalea eta Jardun antolakundea gogor kritikatu zituzten komunikatuan, horiek guztiek, ezker abertzaleak «bultzatuta» betoa sustatzen dutelakoan; «arduraz eta erantzukinez» jokatzera deitu zituen, halaber. Aipaturiko eragileek gezurtatu egin zuten inongo beto politikorik dagoenik. •



OLIYOS
TABERNA JATETXEA

Erregezaintza, 4
Donostia
Tel.: 943-21 49 89

zuhaiztilhi.hezkuntza.net
012202aa@hezkuntza.net
943-89 9175

ZUHAIZTI
Eskola Publikoa



Inoiz baino euskarazko film gehiago hartu ditu 73. Donostiako Zinemaldiak

Euskal zinemak inoiz baino presentzia handiagoa izan du aurtengo Donostiako Zinemaldian, baita maila altua erakutsi ere. Sail Ofizialean lau euskal ekoizpen proiektatu zituzten, bi lehiaren barruan eta bi lehiatzeko kanpo —*Karmele* eta *Zeru ahoak*—, eta lehiatzen ziren biak saritu zituzten. Hain zuzen ere, Sail Ofizialeko epaimahaiak Alauda Ruiz de Azua bilbotarraren *Los domingos* filmari eman zion Urrezko Maskorra. Interpretazio nagusi onenari Zilarrezko Maskorra Jose Ramon Soroiz aktoreak irabazi zuen, *Maspalomas* filmarengatik. •

Tabakalerak 10 urte bete ditu

Hamar urte bete zituen Tabakalerak irailean, eta egitarau zabal batean murgildu da hilabeteotan, urteurrena ospatzeko. Urte luzez erabilerarik gabe egondako tabako fabrika erraldoia arte garaiki-dearen nazioarteko zentro gisa zabaltu zuten 2015ean, eta Edurne Ormazabal zuzendariaren ustez, Tabakalera «kontsolidatu» egin da azken hamar urteotan: «Izaera propio eta berezia duen zentroa da, eta, batez ere, sorkuntza sustapenari egin dio ekarpena, ez soilik Donostia mailan, Euskal Herri mailan baizik». •



Lourdes Iriondori eman diote Gipuzkoako Urrezko Domina

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Urrezko Domina eman zion abenduan Lourdes Iriondo Mujikari (Donostia, 1937-Urnieta, 2005) bere heriotzaren 20. urteurrenean. Aintzatespen horrekin, euskaren biziberri-tzean eta euskal kulturaren suspertzean Iriondok egindako «lan mami-tsu eta berritzaileari» justizia egin nahi izan zion aldundiak, «emakume sortzaile gisa urratutako bideagatik, eta justiziaz haren izena eta ondarea gure lurraldearen historian idatzita gera daitezen». •

Antton Valverde, Maite Rosende eta Juan Mari Beltran saritu dituzte

Sari ugari iritsi dira aurten artista donostiarren eskuetara; horietako hiru dira Antton Valverde musikaria, Maite Rosende ilustratzailea eta Juan Mari Beltran musikari, musikologo, konpositore, etnografo eta irakaslea. Euskal kantagintzan izandako eraginagatik Adarra saria, *Traba* lanarengatik ilustrazioaren Euskadi saria eta bere ibilbideari eskainitako Manuel Lekuona saria jaso dituzte, hurrenez hurren, urte honetan zehar. •



Kontzertu handiek musikatu dute Donostia

Musikari esanguratsuek jarri diote soinu banda udara donostiarrari aurren; izan ere, 2025ak utzi ditu, beste batzuen artean, hiru kontzertu handi: Anoe-ta hankaz gora jarri zuten ekainean Bruce Springsteenek eta Fermin Muguruzak, eta goraino betetako Illunbe batek hartu zuen Zetak taldea, irailean. Springsteenek bi kontzertu eman zituen, guztira 80.000 pertsona inguru batuz; Muguruzak bakarra eman zuen, 30.000 pertsona ingururentzat, eta Zetak taldeak hiru aldiz bete zuen zezen plaza, ia 40.000 pertsonarekin. •





Amaia Montero La Oreja de Van Gogh taldera itzuli da

Zurumurrak gero eta handiagoak ziren eta, azkenean, Donostiako La Oreja de Van Gogh (LODVG) pop talde arrakastatsuak ofizial egin du albistea: aurren, Amaia Montero abeslaria itzuli da. Taldeak jakinarazi du, halaber, Pablo Benegas gitarristak taldeko kide izaten jarraitzen duela, baina ez dela oholtzara igoko, tarte batez «gelditzea» erabaki duelako. Udaberri aldera kontzertu bira bat egingo dutela esan zuten: uztailaren 31n eta abuztuaren 1ean joko dute, Illunben. •

Kultur establezimenduen irekierak eta itxierak urtean zehar

Mugimendua sumatu zen, urtean zehar, denden irekiera eta itxieratan: Egia Records binilo denda ireki zuten Egian abenduan, non disko klasikoak eta berriak aurki daitezkeen. Udazkenean, Errabundia liburu denda ireki zuten Grosen, irakurle guztientzako eskaintza zabala eta egunerokoa eskainiz, eta Altxerri aretoak berriro ireki zituen ateak, musikari lotutako zein bestelako ekitaldi batzuk hartzeko asmoz. Bestalde, Hontza liburu denda itxiko dutela iragarri zuten, 1982tik funtzionatzen aritu ondoren, erreleborik aurkitzen ez dutelako. •







CACTUS

T A B E R N A

943-05 41 67

PLAZA BERRI · EGIA



www.jobilan.eus

Teilatuak.

Fatxadan isolamendu termikoa...

Pintura barnean eta kanpoaldean.

Lan koordinaketak.



620-70 69 36

Txirrita Bertsolaria, 21 · Altza · Donostia · info@jobilan.com



Donostia Arraun Lagunak-ek laugarren liga eta Kontxa eskuratu ditu

Historia idazten eta garaipenen zerrenda handitzen jarraitzen du Donostia Arraun Lagunak-ek. Aurten, laugarrenez irabazi dituzte Euskotren liga eta Kontxako Bandera. Aipatzekoa da Kontxako sailkatze estropada ez zutela jokatu, araudiaren aldaketarengatik —aurretantzean, ligako traineru donostiar onena zuzenean sailkatuko da—. Horrez gain, Lugañenea ontziak Gipuzkoako eta Espainiako traineru txapelketak eskuratu ditu. Bestalde, Donostiarrako neskentzat ez da denboraldi erraza izan. Horrela ere, Euskotren ligan jarraituko dute datorren sasoiaren, mailari eusteko kanporaketa jokatu eta gainditu zutelako. Mutilek, berriz, hirugarren bukatu zuten Eusko Label liga. •

Bera Berak hirukoa lortu du, bigarrenenez: liga, kopa eta superkopa

Donostian ez dago lehen mailako talderik Bera Bera eskubaloit taldeak bezainbeste titulu dituenik. 2024-2025eko denboraldia borobildu dute aurten, hamargarren liga eta bederatzigarren kopa eskuratuta. Gainera, bigarren aldiz lortu dute hirukoa. Hau da, sasoi berean liga, kopa eta superkopa irabaztea. Alba Menendez eta Esther Arrojeria kapitainen azken tituluak izan dira, iragan denboraldi bukaeran erretiratu zirelako. 2025-2026ko sasoiaren ondo abiatu zuten, martxoan, hirutik hirugarren Iberiar Superkopa irabazita. Ordea, Europa ligako QR3 kanporaketa ez zuten gainditu, eta ez dute multzoen ligaxka jokatu. •



Sara Alonsok bigarren postuan bukatu du Golden Trail Series zirkuitua

Kolpe kolpe eta oztopoak oztopo, ikaragarria da Sara Alonso korrikalari donostiarrak aurten lorturikoa. Maiatzan, Zegama-Aizkorri lasterketa irabazi zuen estreinako aldiz. Uztailean, ordea, denboraldia eten behar izan zuen, entrenatzen ari zela, behi batek eraso egin ziolako. Gorputzean traumatismoak eragiteaz gain, seigarren saihestasun hezurra hautsi zion. Horrela ere, denbora gutxian erreperatu eta bi balentria lortu zituen. Batetik, txapeladunordea izan zen irailean Canfrancen jokatu zuten Trail eta Mendi Korrikalaritzako Munduko Txapelketan. Bestetik, urrian, bigarren tokian bukatu zuen Golden Trail World Series zirkuitu esanguratsua. •

Txuri Urdineko neskek hirugarren liga irabazi dute

Final estua eta lehiatua jokatu, hirugarren liga eskuratu zuen martxoan Txuri Urdineko nesken izotz hockey taldeak. Iaz baino gehiago kostatu zitzaizkien Majadahonda gaitzitzea, eta finaleko bost partida jokatu behar izan zituzten titulua lortzeko. Bina partida irabazi zituzten bi taldeek, eta neurketak erabakigarria Majadahondan jokatu zuten. Donostiarrak kostata menderatu zituzten madrildarrak (2-3), baina ligako garaikurra altxatu zuten. •



Realeko gizonetzkoen bigarren taldeak egin du urratsa

Lehen taldearen aldean, Real B izan da zale txuri-urdinei ilusioa eta poza eragin diena. 2024-2025eko denboraldia borobildu zuten ekainean, bigarren mailara igotzea lortu zutenean. Tarragonako Nastic menderatu zuten Zubietan jokaturiko partida erabakigarrian. Finaleko joanekoan irabazi ostean (1-3), itzulerakoan kataluniarrek kanporaketa berdintzea lortu zuten (0-2). Luzapenean, ordea, txuri-urдинen alde adierazitako penalti bati esker, gola egin eta bigarren mailara igo ziren. Gizonetzkoen lehen taldeak, berriz, hamaikagarren tokian bukatu zuten, eta emakumezkoenak zazpigarren postuan. •



Yago Agirre Euskaltel-Euskadirekin ariko da profesionaletan

Datorren sasoiari, Donostiak beste ziklista bat izango du profesionaletan: Loiola-ko Erriberako Yago Agirre. Euskaltel-Euskadirekin sinatu du datozen bi urtetarako. Donostialdea Bizikletan taldean hezitako ziklistak profesionaletara egin zuen jauzia Alemaniako Sauerland talde kontinentalarekin afizionatu mailatik pasatu gabe. Ordea, iaz Euskal Herrira itzuli zen, eta Euskadi Fundazioarekin maila onean aritu da. Izan ere, ekainean, 23 urtez azpiko Espainiako errepedeko txapelketa irabazi zuen, Granadan. •

Dominak jantzi eta txapelketak irabazi dituzten beste kirolariak

Aipamena merezi duten beste kirolari donostiarrak ere badira. Apirilean, Mirian Arraiza pilotariak Emakume Master Cupeko Binakako Txapelketa irabazi zuen, Enara Gaminderekin batera. Abuztuan, Irati Mitxelena atletak zilarrezko domina irabazi zuen luzera jauziko Espainiako txapelketan. Irailean, Singapurreko Munduko Txapelketa paralinpiarrean, Iñigo Llopisek urrezko bi domina eskuratu zituen, eta Nahia Zudairek urrezko bat eta brontzezko bi. •



MariaReinaEskola
Hegan egiteko hezkuntza eta hegoak.

**ATE IREKIAK
URTARRILETIK
AURRERA**




Ametzagaña 58 • Egia • 20012 • Donostia
T 943 27 15 96 / mariareinaeskola.com



200

55€
*urtean

**HITZAKIDE DIGITALA
+ 2026 agenda**



85€
*urtean

**HITZAKIDE HARPIDEDUNA
+ 2026 agenda**



**200 harpidedun berri
behar ditugu Donostia
guztiak kontatzen jarraitzeko.**

**Zure laguntza
ezinbestekoa zaigu.**

Irutxulo.hitza.eus

